

Waluk. *Euskarazko edizioa*

Gidoia: Emilio Ruiz
Marrazkiak: Ana Miralles
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2017
Kolorea. Azal gogorra
56 orrialde. 29 x 21 cm. 15 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16880-38-6

Urriaren 19an salgai

Bi hartz zuri, munduan beren tokia bilatu nahian

Alegia ekologista bat baino gehiago da ipuin samur eta hunkigarri hau, eta dagoeneko Espainian, Frantzian, Brasilen eta Estatu Batuetan argitaratu dute

Hartz zuri txiki bat, amak abandonatutakoa, hartz zahar erretxin batekin elkartuko da, eta zaharrak bizitzaren gorabeherei aurre egiten irakatsiko dio. Miresmena eta beldurra. Edertasuna eta zalutasuna; itxura, zenbaitetan, gizakiena. Hartz zuriak animalia xarmagarriak dira, eta, lilura horri men eginez, *Waluk* kontakizun samurra eta hunkigarria sortu dute Ana Mirallesek eta Emilio Ruizek.

Bizirauteko borrokan ari diren bi hartz zuri, pertsonen modura hitz egiteko eta hunkitzeko gauza diren bi hartz zuri baliatu dituzte Ana Mirallesek (hiru hamarkada luzeko eskarmentua duen marrazkilaria eta nazioartean zenbait komiki

argitaratu dituena) eta Emilio Ruizek (alor desberdinetako gidoigile ezaguna) espezie horrek dituen arazoez, ingurunearen egungo arazoez eta gizkiak animalia horien etorkizunean duen eraginaz gogoeta egiteko.

Horiek guztiak eta gehiago azaleratu dizkigute bi sortzaileek, *Waluk* gabeziez ere mintzo baita; agertzen digu nola izaki orok, adina edozein delarik ere, sekula ez duen erabateko autonomia, nola bizitzaren garai bakoitzean ezinen eta ahalen arteko oreka aldakora dagoen. Ana Mirallesentzat erronka grafiko nabarmena izan da hartzei giza-eiteak eta itxurak ematea. Txantxetan ibili ohi ziren hasieran, erraz-erraza izango zelakoan Artikoan hartz zuriei buruzko istorio bat marraztea, baina bazterrean geratu ziren aurreiritzi horiek bere paletan zabaltzen ari ziren koloreak ikusita. Kolore askotako mundu txundigarri bat azken emaitza; ohian tropikal beti berdea eta antzeko beste toki paradigmatikoen zerrenda zabaltzen duen mundua.

"Naturarekiko maitasun benetakoa dario *Waluk* obrari, eta animaliek beren ingurunean bizitzeko duten eskubidea sutsu defendatzen du".

Koldo Azpitarte, *Mondosonoro*

Egileak



Emilio Ruiz (Santander, Espainia, 1960). Arte Ederretan lizentziatu zen Valentziako Universidad Politécnica-n, eta argazkilari lanbideari ekin zion 1982an. Hasiera batean, publizitatearen alorrean jardun zuen, eta, geroago, dantza eta antzerkirako argazkilari. Aurrerago, diapositibekin ikus-entzunezkoak egiten berezitu zen, antzerki, dantza eta erakusketetako eszenografien atzealdeetarako. Bideoarteko zenbait dokumental eta proposamen ere egin ditu, eta aldi berean *Cuéntame cómo pasó* telesailerako diseinatzaile eta dokumentalista jardun zuen (2001-2003). Komikiaren alorrean, zenbait gidoi egin ditu Ana Mirallesekin batera: *El brillo de una mirada* (Casset, 1990) eta *En busca del unicornio* (Glénat, 1996-1999) trilogia argitaratu ditu; azken hori Juan Eslava Galán-en izen bereko nobelaren (1987ko Planeta saria) egokitzapena da, eta Diario de Avisos-en gidoi onenaren saria irabazi zuen 1998an. 2009an *De mano en mano* (De Ponent) argitaratu zuten elkarrekin Ana Mirallesek eta Emilio Ruizek, eta berriro heldu diote elkarlanari Waluken albumekin: *Wáluk* (Astiberri, 2011; euskaraz, 2017) eta *Wáluk. La gran travesía* (Astiberri, 2017). *Muraqqa'* albuma ere egin zuten (12bis, 2011), non emakumezko artista baten bizipenak kontatzen dituzten, XVII. mendearen hastapenetan, Jahangir errege mogolaren gortean.

Ana Miralles (Madril, 1959). Arte Ederretan lizentziatu zen, Valentziako Universidad Politécnica-n. Komikiak eta ilustrazioak ditu lanbide 1982az geroztik. Aldizkari ugaritan argitaratu ditu bere lanak, besteak beste, *Rambla*, *Madriz*, *Cairo*, *Marca Acme*, *Blue Press*, *Marie-Claire España*, *Vogue España* eta *Je Bouquine*. Autore geldiezina eta emankorra da, eta bere ibilbide profesionalaren hastapenetako obrak haur eta gazteentzako liburuetan, testu liburuetan, afixetan, liburu azaletan, aldizkarietan, album kolektiboetan, publizitatean, esku-orrietan, serigrafietan eta komunikazio grafikoarekin zerikusia duten era guztietako lanetan ikus daitezke; antzerkirako eta zinemarako ere jardun du: jantzien diseinua, eszenografietako atzealdeak eta gidoi grafikoak. Komiki albumak eta bildumak argitaratu ditu bai Espainiako baita Frantziako merkaturako ere. *Marruecos, mon amour* eta *Eva Medusa* trilogia (Glénat) sortu zituen Antonio Seguraren gidoiarekin, eta Emilio Ruizekin elkarlanean jardun du zenbaitetan. Mende berriaren hasieran, *Djinn* (Dargaud/Norma) sortari ekin zion, Jean Dufaux-en gidoiarekin, eta dagoeneko argitaratu dira bilduma osatzen duten hamahiru aleak. Bartzelonako Azokako Sari Nagusia eskuratu zuen Ana Mirallesek 2009an, komikigintzan izan duen ibilbide luzearen aitormenez.


NEGUA HURBIL ZEN, ETA GERO ETA ZAILAGOA ZEN BIZIRAUTEA. HARTZ ZURIAK AKTIBO DAUDE URTE OSOAN. HORREK EGAN NAHI DU JANARIA FALTA DENEAN BEHAR DEN TOKIRAINO JOANGO DIRELA BILA. GERO ETA GERTUAGO ZEUDEN GIZAKIENGANDIK. EGUN BATEAN, BESTELAKO ZORU BAT ZAPALTZEN ZUELA OHARTU ZEN WALUK. LATZA ZEN UKITZEAN, USAIN BIXIA ZUEN, BERO ZEGOEN ETA BELTZ-BELTZA ZEN: ASFALTOA.
ZER DA HAU, ESKIMO?
GIZAKIEK ERABILTZEN DITUZTEN BIDEAK DIRA. HAUEI ESKER OSO BIZKOR JOATEN DIRA TOKI BATETIK BESTERA, HANKA BIRIBILETAKO IZAKI BIXI BATZUEN BARRUAN...
BEGIRA, WALUK! HOR DOAZ. IKUSTEN?
Ajjjj!
HORI EZ DA JATEN, EZ?
EZ, EZ! MUGITU ARREN, EZ DIRA JATEKOAK. KIRATSA DARIE ETA EZIN DIRA HAGINKATU.
TOKI HONETARA ETORTZEN GARA HARTZOK OSO GOSE GARENEAN. GIZAKIEK ERDI JANDAKO JANARIA BOTATZEN DUTE, ETA GERO ERRE EGITEN DUTE.


IKUSTEN ZERGATIK BIZIRAUN DEZAKEGUN HARTZOK EDOZEIN TOKITAN? EZ GARA BATERE MIZKINAK.
BEHAR DUGUN BAKARRA HOTZA DA, EZIN BAITUGU LARRUA GAINETIK KENDU.
BAINA...
SNIF... SNIIIF...
SNIIIFF...
SNIIIFF...
FOKA-GANTZA!!!
DANGER BEAR TRAP
HHMMM!